

ETORKIZUNA

«Proiektu batek besteari bidea ematea eta etekin artistikoa lortzea da erronka»

Beste leku batzuetara gonbidatzen gaituztenean lan egitera, eta aktore talde berria izan arren, gure hizkuntza berezia atzematen dela diote. Teknologia bat dela iruditzen zait; giza teknologia. Beti gustatu izan zaigu obra batean gauden guztion artean komunikatzeko hizkuntza komuna topatzea, gizaki bezala zer sentitzen dugun entzutea.

Urteak aurrera joan ahala, lan egiteko modu jakin bat hartu dugu. Hala ere, ez errepikatzen saiatzen gara. Valle Inclanena adibidez, eremu berri bat da, probokazio bat. Arrisku hori hartzeak ez gabela mugaturik gelditu pentsarazten dit. Jada gustua aurkitu diogu berritasunari, gaingitzen ez gaituen berritasunari noski.

■Errepikatzeko joera hori al dago antzerkian, erosotasunean jaustekoa?

Arlo artistikoan orokorrean, hain mundu zaila denez, eta justu-justu bizitzeko behar duzuna lortzeko asko sufritzen duzunez, nekeak akabaturik, bide "errazago" hori heltzea gerta daiteke.

Gure kasuan, ordea, etengabe biran dabilen jendea gara, mugakoak, eta beti mugitzera beharturik egon gara —gainera, ekoizpen gune garrantzitsuetatik urrun gaude—. Guretzat jada zaila da geldirik egotea. Hala ere, bizimodu honek asko nekatzen du. Hamabost urte daramatzagu gelditu ere egin gabe, eta noski, bidean hainbat lagun gelditu dira. Zaila izango da luzaroan horrela jarraitzea!

■Ekoizpen guneak urrutit egotea, nekea, ziurgabetasuna... aipatu dituzu antzerkia egiteko zailtasunen artean. Hala ere, erantzun ona du ikusleen aldetik. Zer eskaintzen dio antzerkiak egungo gizarteari?

Hunkitu egiten dira antzerkira datozen ikusleak, eta asko errespetatzen dute zure lana; ulertzen dute ahal duzun duintasun guztiarekin egiten duzula antzezlan.

Jendeak ikusi nahi du antzerkia. Salamancako inaugurazioan, adibidez, aktoreak irten zirenean berotu zen jendea, orduan sortu zen festa, alaitasuna. Komunikazio handia sortzen da. Antzerkia beti izango da beharrezkoa, ikusleak beti nahiko du zuzenean eta une horretan istorio bat konta diezaioten.

Hala ere, egia da antzerkian

lan egitea nekeza dela. Izan ere, lan talde oso batek elkar ulertu behar du, eta egun gero eta gehiago jotzen dugu indibidualismora. Gainera, fisikoki eta psikologikoki egunero eman behar duzu barruan duzun guztia, ez da grabaturik edo margoturik gelditzen den zerbait. Egunero gertatzen da zure lanaren erakustaldia. Eta askotan ezin duzu eman, eta emozionalki asko nekatzen du. Krisiaren mugan bizi zara, eta horrek kostu handiak ekartzen ditu. Lan hori ezin da diruz ordaindu. Horregatik, instituzio publikoetatik lagundu egin behar diote antzerkiari, ondasun sozial eta kulturala delako.

■Nola lagun diezaiokete euskal antzerkiari?

Plangintza orokor bat egin behar da. Jada profesional garrantzitsuak daude, eta politikoki erantzun behar zaio egoera horri. Artistak bagaude, ongi presatuak, eta lan ona egiteko go-arekin.

Antzerki eskolatik hasi, ikuslearekin harremanak sendotu eta antzerki taldeen birak sustatu arteko plangintza eratu behar da. Ez du epe laburrean etekinik emango, luzera emango ditu fruituak. Eta ulertzen dut onura hauetaz jabetzea zaila izatea, emozioa edo zorientasuna ez baitira ikusten.

Plangintza hori serio egin behar da, areto onekin, baliabide tekniko txukunekin eta abar. Ondarea zaintzeak inbertsioa eskatzen du. Kezkagarriena, ordea, hainbat gauza galdu egin ditugula da, eskola adibidez, eta jendea kanpora doa lanera edo ikastera.

■Hamabost urteko ibilbidearen ostean, aldi berean lan askorekin batera aritzera heldu zarete. Ba al duzue taldea ekoiztetxe bihurtzeko asmorik?

Ekoiztetxe hitza ez zait gustatzen, errentagarritasun ekonomikoarekin lotzen baitut. Gure asmoa artistikoa da. Beste artista eta proiektuei irekita egongo den taldea izatea nahi dugu; ikusleei eta guri ekarpenak egitea da azken helburua. Gure ilusioa proiektu diferenteak batera garatu ahal izatea da, eta, beraz, jende gehiagoren arteko harreman sarea antolatzea, betiere artearen antzerkiaren irizpidearekin.

Urte hauetan guztietan lan talde asko ezagutu ditut, eta esperientzia horiek baliatzea gusatuko litzaidake. Proiektu batek besteari bidea ematea, jende berria sartzea...; azken batean, etekin artistikoa lortzen saiatzea. Geroz eta gehiago eskaintzea lortu nahi dugu.

LITERATURA. Alberdaniak kaleratu du Labaien sariaren irabazlea

Barruko munstroarekin negoziatzearen alde

‘Krokodiloa ohe azpian’ narrazioa aurkeztu du Mariasun Landak

Juan Luis Zabala | TOLOSA

Antonio Maria Labaien narrazio saria jasotzearekin batera, liburu saritua, *Krokodiloa ohe azpian*, aurkeztu zuen atzo eguerdian, Tolosan, Mariasun Landak. Sari hori irabazitako lan guztiak bezala, Alberdania argitaletxeak eman du argitara Landaren liburua ere, Ostiral sailean, sariaren epaia jakinarazi zenetik hiru aste baino ez direla; Alberdaniaren Ostiral saileko liburu guztiak bezala, Antton Olariagak ilustratu du atzo aurkeztutakoa ere.

Antonio Maria Labaien sariketaren aurtengo ekitaldira aurkezteko hainbat motibo izan dituela adierazi zuen atzo Landak: «Batetik, Antonio Maria Labaien sariak egin duen bidea gustuko dudalako; bestetik, saritutako liburua Alberdania argitaletxeak plazaratzen duelako, eta nik aspaldidanik nuen Alberdaniarekin zerbait argitaratzeko gogoa, zorretan sentitzen bainintzen».


Horretaz gain, aspaldidanik kaxoitik atera ezinik zuen testu bati irtenbidea emateko lagungarri gertatu zaio Landari lehiaketa. «Oso testu ondua da», azaldu zuen idazleak, «kostatakoa, kaxoian urte asko emandakoa, eta, nire kasuan behintzat, baliagarria izaten da data bat jartzea muga gisa, amaitu gabeko testu bati amaiera emateko. Kasu honetan halaxe izan da».

Berak idatzitako beste liburu batzuen aldean, heldutasun handiagoa eskatzen dio irakurleari, Landaren ustez, *Krokodiloa ohe azpian*-ek. «Adin batetik aurrera sumatu eta onartu egiten duzu zeure baitan badela angustia edo bakardade sentimendu bat, batzuetan ikusi ere egiten ez dena baina beste batzuetan agertu egiten dena», esan zuen idazleak.

Angustia edo bakardade sentimendua, gai nagusi

Angustia edo bakardade sentimendu hori du gai nagusi liburuak. «Modu umoretsu batez agertua dago gai hori», Landak esan zuenez, «baina une batzuetan itogarria eta kafkiarra ere bada».

«Amaiera itxaropentsua da, eta halakoxea izan behar zue-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Mariasun Landak, atzo, Tolosan, liburu aurkeztu berria eskuetan.

MARIASUN LANDA

Idazlea

«Barruko krokodiloa sugandila bihurtzeko, maitasuna bide bat da, ez bakarria eta ez perfektua»

la uste dut», jarraitu zuen Landak. «Benetan pentsatzen baitut onartu behar dugula bade-la gudan munstro bat, deabrua dei dezakeguna, edo Alien, edo bestela, liburu honen kasuan bezala, krokodilo bat izan daitekeena».

«Adin batetik aurrera, onartu egin behar duzu krokodiloak, munstroak edo dena dela-koak hor jarraituko duela beti», esan zuen idazleak, «eta harekin negoziatu egin behar duzula, kontsentsu batera iritsi arte. Batzuetan sugandila bihurtuko da, baina beste batzuetan hor izango duzu ohe azpian krokodiloa. Elenak, liburu protagonista, izena

eta guzti jarri dio bereari: Simenon».

Krokodiloa sugandila bihurtzeko ahaleginean, «maitasuna bide bat da, ez bakarria eta ez perfektua», Landaren ustez.

Liburuaren gaia kontuan hartuta, 16 urtetik gorako irakurleentzako liburua dela uste du Mariasun Landak. Inazio Mujika Iraola Alberdania argitaletxearen ordezkariaren ustez, aldiz, 14 urtetik gorakoentzako da. Baina biak ados daude kontu batean: liburua helduek ere irakurtzeko modukoa dela. «Nik beti erreibindikatu dut haur literatura helduentzako ere izan daitekeela, eta beti eutsiko diot horri», esan zuen Landak.

Mariasun Landak Antton Izagirre Tolosako alkatearen eskutik jaso zuen atzo Antonio Maria Labaien saria, eta ekitaldian izan ziren Karlos Linazasoro, Juan Kruz Igerabide eta Felipe Juaristi epaimahai-kideak, bai eta Jokin Ansorena kultur teknikaria ere.